

Unibertsitate Hedakuntzako Ikastaroa

UPV/EHUko Gazte Ekintzailertza 2025 Programarako

Ikastaroaren egitura eta helburuak

Ikastaro hau UPV/EHUren Gazte Ekintzailertzako Programan txertatzen da, eta, aldi berean, UPV/EHUko ekintzailertza sustatzeko programa eta zerbitzuen esparruan sartzen da. Ikastaroa UPV/EHU 2025 Gazte Ekintzailertzako Bekaren onuradun diren ikasleentzat baino ez da.

Helburu nagusia da gure ingurunean ekintzailertza-proiektuei ekiteko garaian oinarritzekoak diren ezagutza eta gaitasun batzuetan ikasleak sartzea.

Ikastaroaren edukia

Aurkezpen saioa, zazpi mintegi eta programaren amaierako saioa biltzen ditu ikastaroak. Prestakuntza-mintegiei proiektuak eta enpresak sortzeko eta zuzentzeko gakotzat jotzen diren alderdiak jasotzen dituzte. Jarraian, modulu bakoitzaren edukia azalduko dugu, labur-labur:

Aurkezpen-saioa:

- Bilkuraren hasiera eta bertaratuei ongietorria.
- Saioaren lan-plana
- UPV/EHUko Gazte Ekintzailertza Programa

1. Moduluak: Ekintzailertzarako Sarrera

2. Moduluak: Estrategia eta Negozio Eredua

3. Moduluak: Ekintzaileentzako Marketina.

4. Moduluak: Balio- Ekintzaile-profilak, itunak eta Startup kultura

5. Moduluak: Ekintzaileentzako finantzak.

6. Moduluak: Produktua eta eragiketak.

7. Moduluak: Salmentak, lidergoa eta jasangarritasuna.

Amaierako saioa:

- UPV/EHU 2025 Gazte Ekintzailtzako Beken barruan landutako proiektuen pitch eta ebaluazio formatuko aurkezpenak.
- Campus bakoitzeko ekintzailtza-programen aurkezpena.
- Ekintzailtzaren gakoak Unibertsitatetik
- 2025eko edizioko proiektu nabarmenen banakako aurkezpena

Ikastaroaren lehenengo lau moduluak amaitu ondoren, ikastaro horri lotutako mentoretza-programa bat jarriko da abian UPV/EHUren 2025eko Gazte Ekintzailtzako Beken onuradun diren ikasle bakoitzarentzat, beka hau arautzen duten oinarrien arabera. Mentoretza-saio batzuk planifikatu dira, eta lanean ari diren eta pertsona ekintzaileei halako zerbitzuak eskaintzen dizkieten profesionalek eskainiko dituzte. Bekadun bakoitzari aholkularia Gabonak baino lehen esleituko zaio eta mentoretza programa 2026ko urtarrila eta ekaina bitartean garatuko da.

Konpetentzia espezifikak

Ikasturte honen helburua ikasleen artean gaitasun hauek garatzea da:

- UPV/EHUko Gazte Ekintzailtzako Programaren helburuak identifikatzeko gai izatea, UPV/EHUko ekintzailtza sustatzeko programen eta zerbitzuen esparruan.
- EAEko ekintzailtzaren erakunde-ingurunean eragile nagusiak zein diren eta zein helburu dituzten identifikatzeko gai izatea.
- Ekintzailtza-prozesurako garrantzitsuak diren trebetasun pertsonal nagusiak identifikatzeko eta garatzeko gai izatea.
- Sustatu nahi den enpresa-ideiaren negozio-planaren hasierako bertsioa egiteko gai izatea.
- Sustatu nahi den enpresa-ideiaren kasu zehatzerako balio-proposamenak eta marketin mixak dakartenari buruzko sarrera-azterketa egiteko gai izatea.
- Enpresa sortu berriei aplikatutako plangintza eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren lehen azterketa egiteko gai izatea.
- Ekintzailtzaren eta ezagutzaren babesaren alderdi juridiko nagusiak identifikatzeko eta barneratzeko gai izatea.

Ikastaroaren datak, lekuak eta formatua

UPV/EHUn Arabako Campusaren hainbat eremutan emango da ikastaroa, Vitoria-Gasteizen.

DATA	LEKUA	EDUKIAK
2025eko azaroaren 24a, astelehena	Lascaray ikergunea	Aurkezpen saioa: programaren nondik norakoak.
2025eko azaroaren 25a, asteartea	Micaela Portilla Ikergunea	1. modulua
2025eko azaroaren 26a, asteazkena	Micaela Portilla Ikergunea	2. modulua
2025eko azaroaren 27a, osteguna	Micaela Portilla Ikergunea	3. modulua
2025eko azaroaren 28a, ostirala	Micaela Portilla Ikergunea	4. modulua
2026ko otsailaren 27a, ostirala	Micaela Portilla Ikergunea	5. modulua
2026ko martxoaren 27a, ostirala	Micaela Portilla Ikergunea	6. modulua
2026ko maiatzaren 8a, ostirala	Micaela Portilla Ikergunea	7. modulua
2026ko uztailaren 3a, ostirala	Micaela Portilla Ikergunea	Amaierako saioa: proiektuen ebaluazioa

Saio guztiak aurrez aurre egingo dira, 10:00etatik 14:00etara bitartean (eskolak emango dituen irakaslearekin adostutako atsedenaldiak barne), eta modulu bat emango da eguneko.

Asistentzia nahitaezkoa da 2025. urtean UPV/EHUn Gazte Ekintzailetzarako Beka jaso duten ikasleentzat. Hala eta guztiz ere, ikasleren batek egiaztatzen badu moduluren baten gaineko prestakuntza duela aldez aurretik, saio horretara bertaratzetik salbuesteko aukera izango du.

Mentoretza programa, UPV/EHUn 2025eko Gazte Ekintzailetzarako Programaren Unibertsitate Hedakuntzako Ikastaroaren parte gisa.

Ikastaroaren lehen lau moduluak bukatu ondoren, ikastaroarekin lotutako mentoretza programa bat abiatuko da 2025. urtean UPV/EHUn Gazte Ekintzailetzarako Beka jaso duten ikasleentzat, beka arautzen duten oinarrien arabera. Zenbait mentoretza saio antolatu dira ekintzaileei horrelako zerbitzuak ematen dizkieten profesionalekin. Gabonen aurretik esleituko zaio mentorea bekadun bakoitzari, eta mentoretza programa 2025eko urtarrila eta ekaina bitartean gauzatuko da.

Bekaren onuradunei eskatzen zaizkien konpromisoak

- Ikastarora joatea, bere helburuak bete ahal izateko eta ikastaroaren aprobetxamendua lortu ahal izateko modu aktiboan parte hartzeko.
- UPV/EHUn 2025ko Gazte Ekintzailtzako Programaren koordinazioak egindako informazio-, dokumentazio-, ebaluazio- eta antzeko eskaera guztiak betetzea.
- UPV/EHUn Gazte Ekintzailtzako Programaren esparruan planifikatutako mentoretza-saioak eskatu eta horietan aktiboki parte hartzea.
- Proiektuaren azken txostena betetzea. Txosten horretan, zehatz-mehatz adierazi beharko dira gauzatutako gazte-ekintzailtzako proiektuaren garapena, jasotako mentoretza-saioak, horietako bakoitzaren ekarpenaren ebaluazio laburra eta jasotako diru-hornidurak izan dituen helburuen adierazpen zehatza.